

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euskara

“BIZKAIKO 1:5.000 ESKALAKO HIRI-TOPONIMIAREN NORMALIZAZIOA ETA ARABA,
BIZKAIA ETA GIPUZKOAREN ARTEKO MAPA MUGAKIDEEN TRATAMENDU BATERATUA”

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

- 1.- Sarrera
- 2.- Egin beharreko lanak
- 3.- Jarraipena eta kontrola
- 4.- Zerbitzuaren kokapena
- 5.- Lana entregatzeko tokia

1.- SARRERA

Toponimia kartografiaren osagai garrantzitsuenetako bat da. Izan ere, toponimoa mapa bateko edozein zehaztasuni izena ematen dion hitza edo hitz multzoa da. Toponimiazko mapa egokia toponimoek berekin duten arte-, kultura- eta historia-ondarea zaintzen eta gordetzen duena da, eta toponimoak euren etimologia, bilakaera eta dagokien kokagune geografikoari lotuta daude beti.

Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia jaso eta aztertzeko premia dago honako bi arrazoi hauengatik:

- Ezinbestekoa da egun toponimoen inguruan dagoen bateratasun-ezari aurre egitea, oso ohikoa baita toki bat bera era desberdinetan izendatzea kartografian, hedabideetan, argitalpenetan (testu-liburuak, gidak...) eta baita administrazioaren lanetan eta errepide-seinaleetan ere.
- Oso garrantzitsua da 1:5.000, 1:10.000 eta 1:25.000 eskaletan egindako oinarritzko kartografian toponimia normalizatua txertatzea.

1.1.- Aurrekariak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia biltzeari ekin zion 1987an, Bizkaiko toponimia datu-base batean bildu zuenean; geroago, 1991n datu-base hori Gipuzkoako eta Arabako toponimia bilketa-lanekin osatu zuen. Harrezkero, etengabe aritu da datu-basea eguneratzen eta zuzentzen.

Halaber, 1998ko uztailaren 28an Gobernu Kontseiluak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onetsi eta bere egin zuen, eta bertan, besteak beste, toponimia biltzeko beharra ezarri zen. Planak ezarritakoa betetze aldera, Toponimia Batzorde-atal Bereziak "1999-2003 Toponimiako Jarduketara Plana" onartu zuen, eta horren ondorioz, "Bizkaiko toponimia berrikusi eta osatzea" izan zen egindako lanetako bat; lan hori normalizatzeko, arau berriak landu eta finkatu zituzten HPSk eta Euskaltzaindiak, ondoren Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak ontzat eman zituenak. Bizkaiko toponimiaren berrikusketa-lana egin ostean, Arabakoa (2005) eta Gipuzkoakoa (2007) egin ziren. Arabako eta Gipuzkoako toponimiaren berrikusketa horietan bi lurraldeetako 10.000 biztanletik gorako udalerrietako hiri-toponimia ere normalizatu zen. 2003an, Bizkaiko toponimiaren berrikusketan, ordea, ez zen hiri-toponimia lantzea aurreikusi. Horregatik, hurrengo urratsa lurralde horretako 10.000 biztanletik gorako udalerrietan hiri-toponimia arautzeari ekitea izango da, plegu honetan zehazten den eran. Bizkaiko lan honen ardatza Arabako eta Gipuzkoako lanen ildo nagusiekin bat etorriko da, hau da, hizkuntza-normalizazioa eta normalizazio geografikoa egiteko orduan aurrekoetan aplikatutako arautegia erabiliko da.

Horrezaz gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hiru lurraldeak, bakoitza bere aldetik landu da eta, beraz, euren artean mugakideak diren mapen tratamendu bateraturik ez da inoiz egin orain arte. Horregatik, bateratze-lan hori ere egingo da kontratu honen barruan.

2.- EGIN BEHARREKO LANAK

-Bizkaiko hiri-toponimia normalizatzeko lanak honako fase hauek izango ditu:

1.- Dokumentazio-lanak:

- 1.1.-Dokumentazio-iturriak bildu: herri mailako kartografia, web orriak hautatu ...
- 1.2.- Kartografia oinarriak eskuratu Bizkaiko Foru Aldunditik.

2.-Normalizazio geografikoa:

- 2.1.-Bizkaiko Foru Aldundiaren kartografian moldatze-lanak egin.
- 2.2.-2007ko hiri-toponimia txertatu mapetan iturri dokumentaletako informazioan oinarrituz.
- 2.3.-Lekuen eguneratzea egin.
- 2.4.-1:5000 eskalako kartografian errotulazio-lanak burutu.
- 2.5.-Mapen karatula egin, Arabako eta Gipuzkoako mapen formatuari jarraituz eta data gaurkotuz.

3.-Normalizazio linguistikoa: hiri-toponimiaren arautze-lana egin.

4.-Bestelako lanak:

- 4.1.-Bizkaiko denetarako bertsioa txertatu datu-base orokorrean.
- 4.2.-Mapa guztietako pdf-ak prestatu bertsio guztietan.

-Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mapa mugakideen tratamendu bateratua egiteko lan hauek burutuko dira:

- 1) Materialen hautaketa: ahozko bilketaren mapak eskuratu lurraldeka.
- 2) Datu-basea moldatu.
- 3) Oinarri kartografikoak hautatu.
- 4) Leku mugakideen bateratze-lana egin.
- 5) Puntu kartografikoen hautaketa egin EAEko mapa osoa kontuan hartuz.
- 6) Toponimoen arautze-lanak berrikusi datu-baseko bertsio guztietan (dagokien bi lurraldeetako dokumentazioa aztertuz).
- 7) Mapak errotulatu hiru bertsiotan.
- 8) Datu-basea gaurkotu.

Arautze-lan guztiak Euskaltzaindiaren gidaritzapean egingo dira.

Kontratu honen ondorioz garatuko den lanaren emaitzak HPSk aurretik emandako datu-basean txertatuta eskuratu beharko dizkio enpresa esleipendunak HPSri. Gainera, ezin izango da ezer aldatu aipatutako datu-base horren egituran.

Honako hauek aurkeztuko ditu enpresa esleipendunak:

- 1.- Bizkaiko 10.000 biztanletik gorako udalerrien hiri-toponimia eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mapa mugakideen tratamendu osoaren emaitza jasotzen duen datu-base eguneratua.
- 2.- Bizkaiko 10.000 biztanletik gorako udalerrien kartografia 1:5.000 eskalan, Eusko Jaurlaritzaren logotipoa duena, euskarri informatikoan (Eusko Jaurlaritzako Geografia Informazio Sistemarekin bateragarria, hau da, ArcView) eskuratuko diote HPSri, euskarazko bertsioan, gaztelaniazkoan eta denetarikoan.
- 3.- Enpresak egindako lanaren txostena; bertan honako hauek zehaztuko dira: erabilitako metodologia eta dokumentazio-iturriak, toponimoak aukeratzeko ezarritako irizpideak bai eta kartografian erabilitakoak ere. Halaber, datu-basearen edukiaren inguruko argibide eta jakingarri guztiak jasoko ditu txostenak.
- 4.- Lana egiteko erabilitako gainerako materialak, jatorrizkoak: disketeak, CDak etab.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak honako hauek jarriko ditu enpresa esleipendunaren eskura:

- 2003ko Bizkaiko landa-lanaren kartografia paperean
- EAEko toponimoen datu-basea

3.- JARRAIPENA ETA KONTROLA

Enpresa esleipendunak arduradun bat izendatuko du, bi funtzio izango dituena: lanaren prozesu osoa zuzendu eta proiektuaren egiteko guztiak koordinatuko ditu; halaber, Administrazioarekiko harremanetan solaskidea izango da. Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak gainbegiratuko du lana eta horren jarraipena egingo du.

4.- ZERBITZUAREN KOKAPENA

Zerbitzua enpresaren egoitzan garatuko da. Hala ere, Sailburuordetzako zuzendaritzekin behar beste bilera egingo dira eskatzen zaion lana ahalik eta egokien bete dezan. Horretarako, zenbaitetan beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen egoitzara joatea.

5.- LANA ENTREGATZEKO TOKIA

Eusko Jaurlaritza
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria -Gasteiz

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 19a

Araceli Díaz de Lezana
Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna